

XEDAPEN OROKORRAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

5981

490/2024 DEKRETUA, abenduaren 23koa, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia, itsasbazterra antolatzearen eta kudeatzearen arloko Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoa.

Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakiaren 2. artikuluan ezarritakoa betez –irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak onartu zuen–, eta bertan eskatutako formalizazio-izapideak betetze aldera, dekretu honek bi helburu ditu: batetik, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren osoko bilkurak 2024ko abenduaren 16an hartutako erabakia onartzea –erabaki horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio itsasbazterra antolatzearen eta kudeatzearen arloko Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak–, eta, bestetik, eskualdatutako eginkizun eta zerbitzu horiek atxikitzea.

Horren ondorioz, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuak, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak eta Ogasun eta Finantzetako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2024ko abenduaren 23an egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Onartzea Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak 2024ko abenduaren 16an hartutako erabakia, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen baitzaizkio itsasbazterra antolatzearen eta kudeatzearen arloko Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak, abenduaren 23ko 1310/2024 Errege Dekretuan ezarritako baldintzetan. Halaber, agintzea errege-dekretu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitaratu dadila, dekretu honen eranskin gisa.

2. artikulua.– Eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailari atxikita geratuko dira, Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikuluko o) letran xedatutakoa gorabehera.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko abenduaren 23an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
NOËL D'ANJOU OLAIZOLA.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,
MARÍA UBARRECHENA CID.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
AMAYA BARREDO MARTÍN.

ERANSKINA, ABENDUAREN 23KO 490/2024 DEKRETUARENA

1310/2024 ERREGE DEKRETUA, ABENDUAREN 23KOA, ITSASBAZTERRA
ANTOLATZEAREN ETA KUDEATZEAREN ARLOKO EGINKIZUNAK ETA ZERBITZUAK
ESTATUAREN ADMINISTRAZIOTIK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGORA
ESKUALDATZEKO

Konstituzioak 132.2 artikuluan xedatzen du jabari publikoko ondasunak direla «legeak finkatzen dituenak, eta edozein kasutan, itsas-lehorreko aldea, hondartzak, lurralde-itsasoa, gune ekonomikoaren baliabide naturalak eta kontinenteko plataforma». Halaber, 149.1.23) artikuluan xedatzen du Estatuaren eskumen eskusiboa dela «ingurumena babesteko oinarritzko legegintza; horri kalterik egin gabe, autonomia-erkidegoek ahalmenak izan ditzakete, babes-arau gehigarriak ezartzeko».

Bestalde, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bitartez onartuak, 10.31 artikuluan xedatzen du Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duela arlo hauetan: «Lurraldearen eta itsasbazterraren antolamendua, hirigintza eta etxebizitza».

Azkenik, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrek eta irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak zehatz ezartzen dute zein eratan eta zer prozeduraren bidez eskualdatu behar zaizkion Euskal Autonomia Erkidegoari Estatuko Administrazioaren zerbitzuak.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aipatzen den Batzorde Mistoak, 2024ko abenduaren 16ko bileran, erabaki zuen Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzea itsasbazterra antolatzearen eta kudeatzearen arloko Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak. Erabaki hori Espainiako Gobernuari bidali zaio, errege-dekretu bidez onartzeko.

Ondorioz, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean xedatzen dena betez, Lurralde Politikako eta Memoria Demokratikoko ministroak proposatuta eta Ministro Kontseiluaren 2024ko abenduaren 23ko bileran aztertuta, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Batzorde Mistoaren erabakia onartzea.

1. artikulua.– Onartu egiten da Transferentzien Batzorde Mistoak –Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aurreikusten da– 2024ko abenduaren 16ko osoko bilkuran hartutako erabakia; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoari itsasbazterra antolatzearen eta kudeatzearen arloko Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzekoa. Errege-dekretu honen eranskin gisa dator transkribatuta erabakia.

2. artikulua.– Eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzea.

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio itsasbazterra antolatzearen eta kudeatzearen arloko Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak, Batzorde Mistoak hartu duen erabakian ezarri bezala eta erabakian bertan zehaztutako termino eta baldintzetan.

3. artikulua.– Eskualdatzearen eraginkortasuna.

Batzorde Mistoaren erabakian adierazten den egunetik aurrera izango du eragina eskualdatzeak.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Errege-dekretu hau aldi berean argitaratuko da Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

ERANSKINA, ABENDUAREN 23KO 1310/2024 ERREGE-DEKRETUARENA

Jorge García Carreño jaunak eta Begoña Pérez de Eulate González andreak, Euskal Herriko Autonomia Estatutuko bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Batzorde Mistoko idazkariak diren aldetik, hau

ZIURTATZEN DUTE:

Transferentzien Batzorde Mistoak, 2024ko abenduaren 16an egindako osoko bilkuran, erabakia hartu zuela itsasbazterra antolatzearen eta kudeatzearen arloko Estatuko Administrazioaren eginkizun eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko, ondoren zehazten den moduan:

A) Eskualdatzeari babesa ematen dioten konstituzio-, estatutu- eta lege-arauen aipamena.

Konstituzioak 132.2 artikuluan xedatzen du jabari publikoko ondasunak direla «legeak finkatzen dituenak, eta edozein kasutan, itsas-lehorreko aldea, hondartzak, lurralde-itsasoa, gune ekonomikoaren baliabide naturalak eta kontinenteko plataforma». Halaber, 149.1.23) artikulua xedatzen du Estatuaren eskumen eskusiboa dela «ingurumena babesteko oinarritzko legegintza; horri kalterik egin gabe, autonomia-erkidegoek ahalmenak izan ditzakete, babes-arau gehigarriak ezartzeko».

Bestalde, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bitartez onartuak, 10.31 artikuluan xedatzen du Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duela arlo hauetan: «Lurraldearen eta itsasbazterraren antolamendua, hirigintza eta etxebizitza».

Azkenik, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrak eta irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak zehatz ezartzen dute zein eratan eta zer prozeduraren bidez eskualdatu behar zaizkion Euskal Autonomia Erkidegoari Estatuko Administrazioaren zerbitzuak.

Arauzko aurreikuspen horietan oinarrituta, bidezkoa da itsasbazterra antolatzearen eta kudeatzearen arloko eginkizunak eta zerbitzuak Estatuko Administrazio Orokorretik Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatzeko erabakia formalizatzea.

B) Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkion Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak.

Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzean itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa okupatzeko eta erabiltzeko tituluen kudeaketari dagokionez, eta indarrean dagoen araubide juridikoa errespetatuz, Estatuko Administrazio Orokorren administrazioaren, ikuskapenaren eta zehatzeko ahalaren esparruan gauzatzen dituen eginkizun eta zerbitzu hauek:

1.– Hondartzetan eta jurisdikziopeko uretan sasoiko erabilerak (ainguratze-eremuak, pantalan flotatzaileak eta antzeko erabilerak) baimentzeari dagokionez; intentsitate-, arrisku- edo errentagarritasun-inguruabar bereziak dituzten jardueretarako baimenei dagokionez; eta itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa instalazio desmuntagarriekin edo ondasun higigarriekin okupatzeko baimenei dagokionez:

a) Baimen horiek kudeatzea eta ematea.

b) Baimen horiek eman ziren baldintzak ez betetzeari dagokionez, baimenok zaintzea eta dagozkion zehapenak izapidetu eta ezartzea, bai eta isunak biltzea ere.

2.– Bide-zortasunen eta itsasoratzeko sarbideen eremuetan baimenak kudeatzea eta ematea, bai eta baimenok zaintzea eta dagozkion zehapenak izapidetu, ezarri eta biltzea ere, eman ziren baldintzak ez betetzeari dagokionez.

3.– Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 64. artikuluan aipatzen diren jabari publikoko emakiden kudeaketa, barne hartzen dituena haiek ematea, berritzea, luzatzea, aldatzea eta azkentzea. Aipatutako emakidak hauek dira:

a) Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikora isurketak egiteko beharrezkoak direnak eta akuikultura-ustiatzeari itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa okupatzeko eskatzen zaizkienak.

b) Bereziki intentsiboak, errentagarriak edo arriskutsuak diren erabilerak babesten dituztenak, bai eta pribatiboak ere, baldin obra edo instalazio desmuntagarriak badituzte, eta obra eta instalazio horien izaeragatik, xedeagatik edo bestelako inguruabarrengatik lau urtetik gorako okupazio-epea behar badute.

c) Meatze- edo energia-baliabideak ustiatzeko beste emakida batek babestutako emakidak.

d) Bereziki intentsiboak, errentagarriak edo arriskutsuak diren erabilerak babesten dituztenak, bai eta pribatiboak ere, baldin desmuntagarriak ez diren obra edo instalazioak badituzte. Halaber, itsasoan obra finkoak egitea ahalbidetzen duten emakidak, eta itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoan itsas instalazio txikiak babesten dituztenak, hala nola ontziralekuak, pantalanak, ontzitegiak eta abar, baldin portu baten parte ez badira edo portuari atxikita ez badaude.

4.– Emakidak zaintzea, eta dagozkion zehapenak izapidetu eta ezartzea, bai eta isunak biltzea ere, uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 64. artikuluan aipatzen diren jabari publikoko emakidak emateko baldintzak ez betetzeari dagokionez.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko emakiden erregistroa kudeatzea.

6.– Jabari publikoko emakidak berreskuratu aurreko txostena egitea, Estatuko Administrazio Orokorraren eskumena denean eginkizun hori betetzea, interes orokorreko arrazoiak direla eta.

7.– Interes orokorrekoak ez diren obren eta jardueren proiektuak, kudeaketa eta betearazpena planifikatzea, egitea eta onartzea.

C) Estatuko Administrazioak beretzat gordetako eginkizunak eta zerbitzuak.

1.– Estatuko Administrazio Orokorrak beretzat gordetzen ditu itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa erabiltzeagatik edo aprobetxatzeagatik kanonen zenbatekoa finkatzeko eginkizunak, bai eta itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren erabileragatik edo aprobetxamenduagatik sortutako eskubide ekonomikoen titulartasuna erabiltzekoa ere, hargatik eragotzi gabe Euskal Autonomia Erkidegoak jarduera ustiatzeagatik beste kanon batzuk ezartzeko duen eskumena.

Estatuak itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa erabiltzeko edo aprobetxatzeko kanonen zenbatekoa bilduko du, eta Euskal Autonomia Erkidegoak, hala badagokio, jarduera ustiatzeko ezar daitezkeen gainerako kargak bilduko ditu; nolana ere, alde biek kudeaketa hori erabiltzaileei errazteko mekanismoak adostu ditzakete.

2.– Estatuko Administrazio Orokorrak beretzat gordetzen du jabari publikoko emakidak berreskuratzeko eginkizuna, bere eskumen-eremuari lotutako interes orokorreko arrazoi bat egoteak hala eskatzen duenean.

3.– Estatuko Administrazio Orokorrak beretzat gordetzen du itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren estatu-titulartasunak ematen dion zehatzeko ahala, baldin ez bada Euskal Autonomia Erkidegoak kudeatu behar dituen tituluak ez betetzearen ondoriozko arau-hausteei buruzkoa, B).1, B).2 eta B).3 apartatuetan aurreikusitakoaren arabera.

D) Estatuko Administrazio orokorraren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren baterako eginkizunak eta lankidetzan aritzeko moduak.

1.– Atxikitako itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa portu eta garraio-bide berriak eraikitze erabiltzeari eta kudeatzeari dagokionez, edo lehendik daudenak handitzeari edo aldatzeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoak atxikipenaren interesaren eta helburuaren berri emango dio Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari.

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak, bi hilabeteko epean, atxikipen-txostena egingo du, eta, bertan, iritzia emango du itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren osotasunari, ingurumen-prebentzioari edo erabilera publikoaren bermeari buruz. Txosten hori loteslea izango da atxiki daitekeen itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren mugaketari, aurreikusitako erabilerei eta jabari publikoa babesteko beharrezko neurriei dagokienez. Adierazitako epean txostenik ez badago, espedientea izapidetzen jarraituko da. Bi administrazioak ados jartzen ez badira, kontsultak egiteko aldi bat irekiko da, akordio batera iristeko.

2.– Estatuko Administrazio Orokorrak txostena eman behar du itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren araubide orokorra betetzeari buruz (osotasun fisikoa eta erabilera komunitararako sarbide libreko bermea), lurralde-antolamenduko plan eta arauak eta hirigintza-plangintza kontuan izanda, bai eta horien aldaketa eta berrikuspina ere, itsas fatxada antolatzeko plan bereziak eta portu-sistema garatzen duten planak barne. Txosten hori aldekoa ez bada, kontsultak egiteko aldi bat irekiko da bi administrazioen artean, akordio batera iristeko.

3.– Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 64. artikuluan araututako jabari publiko emakidei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoak izapidetzen ari den eskaera bakoitzaren berri emango dio Estatuko Administrazio Orokorrari, gehienez ere bi hilabeteko epean idatziz eman dezan itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren osotasun fisikoaren eta erabilera publikoaren bermeari buruzko irizpidea. Bi administrazioak ados jartzen ez badira, kontsultak egiteko aldi bat irekiko da, desadostasuna agerian jarri eta gehienez ere hilabeteko epean akordioa lortzeko.

4.– Alderdi funtzionalari dagokionez, lankidetzak-formulak ezarri ahal izango dira bi administrazioen eginkizunak hobeto betetzeko; nolana ere, horrek ez die eragingo bakoitzaren eskumenei, eta, bereziki, administrazio bakoitzaren zehatzeko ahalei.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako interes orokorreko obren inbertsioen arloan, autonomia-erkidegoak honela parte hartuko du:

a) Estatuko Administrazio Orokorrak eta autonomia-erkidegoak, eskualdatze-erabaki hau indarrean jarri aurretik, bi aldeko batzorde bat sortuko dute. Batzordeak berak erabaki ditzakeen eginkizunetaz gain, hauek ere izango ditu:

– Parte hartzea alde aurretik interes orokorrekotzat jotako obren plangintzan eta programazioan, proposamenak edo txostenak egiteko ahalmenaren bidez.

– Parte hartzea, proposamenak edo txostenak egiteko ahalmenaren bidez, urte bakoitzeko Estatuko Aurrekontu Orokorraren aurreproiektuaren inbertsio-eranskinean interes orokorreko obrak sartuta.

b) Euskal Autonomia Erkidegoak parte hartuko du, proposamenak edo txostenak egiteko ahalmenaren bidez, Estatuko Administrazio Orokorrak egin beharreko interes orokorreko obren proiektuak izapidetzen, Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 111. artikuluan aipatzen den moduan. Alde horretatik, prozedura izapidetzen den bitartean, autonomia-erkidegoari txostena eskatuko zaio, Kostaldeei buruzko Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuaren 98. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

c) Aurreko paragrafoan adierazitako interes orokorreko obrak betearazteko, autonomia-erkidegoari txostena eskatuko zaio, hilabeteko epean jakinaraz dezan obra bat datorren ala ez lurraldearen plangintzarako tresnekin –itsasertza ukitzen dutenean eta tresna horien izena eta esparrua edozein dela ere– eta indarreko hirigintza-plangintzarekin, uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 111.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

6.– Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa eta Euskal Autonomia Erkidegoa lankidetzan aritu ahal izango dira, hitzarmen egokien bidez, bi administrazioen eskumenekoak diren obrak aztertzeke, betearazteke eta kudeatzeko.

7.– Euskal Autonomia Erkidegoak Estatuko Administrazio Orokorrari emango dizkio ematen dituen itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko emakidei eta baimenei buruzko datuak.

8.– Lankidetzak egokia izango dela bermatzeko, eskualdatzearen jarraipen-batzorde bat sortuko da. Batzorde horren osatura paritarioa izango da, eta sei kide izango ditu, hiruna kide izendatuko baitituzte Estatuko Administrazio Orokorrak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak.

Batzordeak lankidetzak sustatuko du itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren okupazio- eta erabilera-tituluen kudeaketaren eremuan eta, hala badagokio, horrekin lotutako mugaz gaindiko lankidetzaren eremuan; hala, sortu daitezkeen betearazte-arazoei helduko die eta kudeaketa horri buruzko gatazkak eta desadostasunak konponduko ditu.

Gainera, batzorde horretan koordinatuko dira izapidetzen ari diren espedienteen dokumentazioa eta datuak eta okupazio irregularren zerrenda entregatzeko behar diren jarduerak, bai eta eskualdatzen diren eginkizun eta zerbitzuen espedienteak ere, erabaki honen H) apartatuaren arabera.

Jarraipen-batzordea urtean behin bilduko da gutxienez, eta, horrez gainera, bi administrazioetako edozeinek eskatzen duenean.

E) Eskualdatzen diren ondasun, eskubide eta betebeharrak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio transferitutako eginkizunei eta zerbitzuei dagozkien ondasun, eskubide eta betebeharrak (erantsitako 1. eta 2. zerrendetan zehazten dira).

2.– Erabaki hau onartzen duen errege-dekretua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hileko epean sinatuko dira, hala badagokio, kasuan kasuko altzarien, ekipamenduen eta material inbentariagarrien emate- eta jasotze-aktak.

3.– Eskualdatzeak eragindako erantsitako 2. zerrendako kontratuari dagokionez –beteazte-prozesuan dago–, Euskal Autonomia Erkidegoa subrogatu egiten da akordio honen eraginkortasun-datan Estatuko Administrazioak duen posizioan.

4.– Zerrenda horietan zuzenketarik edo aldaketarik egin behar bada, administrazio biek aurretiaz egiaztatuta egingo dira. Horretarako, Transferentzien Batzorde Mistoak ziurtagiri bat emango du.

F) Eskualdatzen diren langileak eta lanpostuak.

1.– Eskualdatzen diren zerbitzuei atxikitako langileen eta lanpostu hutsen izenak aipatzen dira erantsitako 3. zerrendan. Langile horiek Euskal Autonomia Erkidegoaren mendeko izatera pasatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak eta kasu bakoitzean aplikagarri diren gainerako arauak legez aurreikusitako baldintzetan, eta bakoitzaren langile-espeditentean zehazten diren inguruabar berdinetan.

2.– Espainiako Gobernuak erabaki hau errege-dekretu bidez onartu bezain laster, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Idazkariordetzak eskualdaketa eta egoera administratibo berria jakinaraziko dizkie interesdunei.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunei lekualdatuko diren langileen espeditente guztien kopia ziurtatua igorriko zaie, bai eta 2024an haiek sortutako kopuruei buruzko hartzekoen ziurtagiriak ere.

3.– Zerrenda horietan zuzenketarik edo aldaketarik egin behar bada, administrazio biek aurretiaz egiaztatuta egingo dira. Horretarako, Transferentzien Batzorde Mistoak ziurtagiri bat emango du.

G) Eskualdatzearen eragina izango duten aurrekontu-kredituak.

1.– Eginkizunen eta zerbitzuen eskualdatze honi lotutako estatu-mailako urteko kostu osoa erantsitako 4. zerrendan jasotzen da.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoari 218.876,90 euro transferitzen zaizkio, behin bakarrik eta estatu-mailako urteko kostu osoan sartu gabe.

H) Eskualdatzen diren eginkizun eta zerbitzuei lotutako dokumentazioa eta espeditenteak.

Eskualdatzen diren ondasun eta zerbitzuen dokumentazioa eta espeditenteak hiru hilabeteko epean entregatu behar dira, erabaki hau onartzen duen errege-dekretua argitaratzen denetik hasita.

I) Eskualdatzearen eraginkortasun-data.

Erabaki honen bidez onartu den zeregin eta zerbitzuen eskualdatzea 2025eko apirilaren 1ean sartuko da indarrean.

Eta hala jasota gera dadin, ziurtagiri hau ematen da, Madrilan, 2024ko abenduaren 16an. Batzorde Mistoaren idazkariak: Jorge García Carreño jauna eta Begoña Pérez de Eulate González andrea.

1. ZERRENDA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI ESKUALDATUTAKO IBILGAILUEN ZERRENDA

Matrikula	Modeloa	Matrikulazio-data
MMA-05797	Renault Captur E-Tech Plug-In Hybrid	2021
MMA-04812	Renault Megane	2015
MMA-06338	Seat Leon	2023

2. ZERRENDA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI EGINDAKO ESKUALDATZEAK ERAGINDAKO KONTRATUA

Euskal Autonomia Erkidegoa zerrendako kontratuaren dagokion zatian subrogatzea

Kontzeptua	Zerbitzua non emango den	Enpresa	Hasiera-data	Amaiera-data	Zenbatekoa	Eskualdatutako ehunekoa
Errentamendua	Bilboko Areatza pasealekuko 1 zenbakian dagoen aparkalekua, Euskal Herriko Itsasertz Mugarteari atxikia (Bizkaia).	Areatzako Aparkalekua SA	2021-10-01	2025-09-29	9.410,76 euro (BEZa barne).	- % 27,10 (bi aparkaleku-plaza)

2024ko abenduaren 30a, astelehena

3. ZERRENDA
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI ESKUALDATZEN ZAIZKION GIZA BALIABIDEAK
3.1.- FUNTZIONARIOAK

Unitatea	Lanpostuen kodea	Lanpostua	Maila	Taldea	Abizenak eta izena	NANA	Soldata	Lanpostu-maitako osagarria	Berriazko osagarria	Hirur-tekoak	Produktibitatea	Gizarte segurantzza	Guztira (eurotan)
Euskal Herriko Itsasertz Mugartea. Bizkaia	5513423	Atal Teknikoko Burua	24	A1	Cuevas Moreno Manuela	44**6**	17.560,44	9.764,02	9.824,92	0	0	9.762,86	46.912,24
Euskal Herriko Itsasertz Mugartea. Bizkaia	3781371	Bigarren Mailako Programa-Tzailea	16	C1			11.826,64	5.861,66	4.681,60	0		0	22.369,90
Euskal Herriko Itsasertz Mugartea. Bizkaia	5366064	Ingurumen-Agentea	16	C1	Huete Pastor Raul	***77**3	11.826,64	5.861,66	8.161,72	3.029,46	0	6.832,16	35.711,64
Euskal Herriko Itsasertz Mugartea. Bizkaia	5366062	Ingurumen-Agentea	16	C1	Fuente Almandoz Ramon de la	0**85**	11.826,64	5.861,66	8.161,72	3.600,00	2.820,00	6.832,16	39.102,18
Euskal Herriko Itsasertz Mugartea. Bizkaia	798580	Bulego-Burua	14	C2	Fernandez Lopez de Turiso Mercedes	*4***73*	10.024,64	5.109,58	4.681,60	0	0	0	19.815,82
Euskal Herriko Itsasertz Mugartea. Bizkaia	2601434	Bulegoko Laguntzailea	14	C2			10.024,64	5.109,58	4.681,60	0	0	0	19.815,82
Gipuzkoako Kostaldean Zerbitzu Probintziala	5755121	Atal Teknikoko Burua	24	A1	Fernandez Beascochea Sotia	**7**72*	17.560,44	9.764,02	9.065,56	0	0	9.563,30	45.953,32
Gipuzkoako Kostaldean Zerbitzu Probintziala	1957912	Gai Orokorren Ataleko Burua	22	A2	Gonzalez Martinez de L. M.Esther	34***64	15.441,76	8.540,00	5.471,90	0	0	0	29.453,66
Gipuzkoako Kostaldean Zerbitzu Probintziala	5045029	Bulego-Burua	18	C1	Sarabia Sanz Julia Alejandra	*64*0*7	11.826,64	6.613,18	5.435,78	4.055,40	0	6.274,91	34.205,91
Gipuzkoako Kostaldean Zerbitzu Probintziala	5366068	Ingurumen-Agentea	16	C1	Turrillas Lopez Maria	7*4**9**	11.826,64	5.861,66	8.161,72	2.163,90	0	6.832,16	34.846,08
Guztira							129.745,12	68.347,02	68.328,12	12.848,76	2.820,00	46.097,55	328.186,57

2024ko abenduaren 30a, astelehena

3.2. – LANGILE LAN-KONTRATUDUNAK

Unitatea	Lanpostuaren kodea	Lanpostua	Taldea	Abizenak eta izena	NANA	Soldata (14 ordainsan)	Hirurtekoak	Antzinat.-osagari pertsonala	Osagarriak	Gizarte-segurantzia	Guztira (eurotan)
Euskal Herriko Itasertz Mugartea. Bizkaia	4923834	3G – Jабари Publikoaren Zaintza	3G	Carrera Juarez Rodrigo A	1**692**	21.305,34	3.849,30	0	2.125,56	10.142,78	37.422,98
Gipuzkoako Kostaldean Zerbitzu Probintziala	4923903	3G – Jабари Publikoaren Zaintza	3G			21.305,34	0	0	2.125,56	0	23.430,90
Gipuzkoako Kostaldean Zerbitzu Probintziala	4923904	3G – Jабари Publikoaren Zaintza	3G	Lejardi Ibarzabal Alberto	7**720**	21.305,34	2.993,90	1.241,52	2.608,92	10.466,05	38.615,73
Gipuzkoako Kostaldean Zerbitzu Probintziala	4921630	M1 - Obra Zibileko Proiektuak	M1	Oiz Arruti Jose Maria	15***0*1	21.305,34	3.421,60	1.241,52	2.990,28	10.766,86	39.725,60
		Guztira				85.221,36	10.264,80	2.483,04	9.850,32	31.375,69	139.195,21

4. ZERRENDA
ESTATU-MAILAKO URTEKO KOSTU OSOA
(Euroak, 2023)

23. atala – *Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa*

Aurrekontu-aplikazioa	Kapitulua	Zenbatekoa
23.06.456D	1	3.426.995,98
23.01.451O	1	149.145,54
23.12.451O	1	4.595,62
23.12.451O	2	248.506,02
23.06.456D	6	460.832,62
23.12.451O	6	3.022,97
Guztira		4.293.098,75